

## GIPUZKOAKO BAZKUNDEAK BRASILERA JOATEKO MISIO KOMERTZIALA ANTOLATU DU

**Donostia - 2015ko Maiatzaren 8a** - Brasilera joateko misio komertziala Gipuzkoako Bazkondeak antolatzen du, Arabako eta Bilboko Ganberekin batera eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailaren laguntzarekin.

Misioa maiatzaren 11 eta 15a bitartean egingo da eta 19 enpresek parte hartuko dute, 9 gipuzkoar, 8 bizkaitar, arabar 1 eta errioxako 1. Sektoreei dagokionez, makina-erreminta, eraikuntzako materiala, instalazio elektrikoak, ingenieria, automozioa, industriako produktuak, ekipamendu ondasunak, industria kimikoa, material elektrikoak, etxetresnak... hauek izango liriateke herrialdea bisitatuko duten enpresen sektoreak.

Misio honen helburu nagusia merkatu honetan interesaturik dauden euskal enpresen erlazioak sendotzea da, eta herrialde honetako enpresariekin kontaktu zuzena izateko aukera eskaintzea.

### Brasil

Brasil munduko bostgarren herrialde handiena da Errusia, Canada, Txina eta EEBBen atzetik. Herrialde honetako erdi mailako biztanleria hazten ari da, C klasea bezala ezagutzen dena, eta biztanleri mota hau biztanlegoaren erdia da dagoneko, kontsumo ondasunen sektoreei aukera handiak eskaintzen dielarik, herrialdea bisitatuko duten gure enpresen sektoreei hain zuzen ere. Brasileko ekonomia latinoamerikako lehen ekonomia da (%40) eta munduko zazpigarrena. Brasilera 2013an egindako atzerriko inbertsioa 64.045 miloi dolarretakoa izan zen (2012an baino 3,4% gutxiago) UNCTADek emandako datuen arabera.

Esportazioei dagokionez, 2014ean Euskal Autonomi Erkidegoak 424 miloi euro esportatu zituen Brasilera. Euskal Autonomi Erkidegoak Brasilera esportatzen dituen produktu nagusienak honako hauek dira:

ESPORTATUTAKO PRODUKTUAK	Miloi €	guztiaren %
AIREONTZIAK, ESPAZIOKO IBILGAILUAK ETA ZATIAK	48	%11
GALDAKETA, BURNIA ETA ALTZAIRUA	24	%6
GALDAKETAKO MANUFATURA, BURNIZKOA EDO ALTZAIRUZKOA	23	%5
PRODUKTU KIMIKO EZ ORGANIKOAK	20	%5

**Informazio gehiago nahi izanez gero:**

Irene Bengoetxea

[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com)

943 000 310 / 688884347